Xedapen Orokorrak

HERRIZAINGO SAILA

2400

AGINDUA, 2011ko apirilaren 15ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, zeinen bidez zehazten baita bideokamera finkoen instalazioa eta Euskadiko Poliziak nola erabiliko dituen jakinaraziko duten informazio-kartelen edukia eta diseinua.

168/1998 Dekretuak (uztailaren 21ekoa, Euskal Herriko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimena, abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoan arautua, garatzen duena) arautu nahi du Euskadiko Poliziak bideokamerak erabiltzeko baimenen eta haien erabileraren erregimena. Ekimen horren bidez, honako hau lortu nahi da: herritarren arteko bizikidetza bermatzen eta kaleak eta espazio publikoak modu baketsuan erabiltzen laguntzea; indarkeria errotik kentzea; eta segurtasun publikoarekin zerikusia duten delituak, faltak edo arau-hausteak gehiago gertatzeko bidea moztea.

Dekretuaren 9. artikuluak dioenez, jendeak eskubidea du argiro eta etengabe ohartarazia izateko bideokamera finkoen instalazioaz, non dauden zehatz jakinarazi gabe, eta horien gaineko eskumena daukan agintaritza zein den jakiteko eskubidea ere izango du.

Bideo-zaintza eta Askatasunen Batzordeak 2009ko urriaren 7ko bilkuran irizpidetzat hartu zuen jendaurreko informazio hori informazio-kartelak jarriz jakinaraziko zela, eta kartel horiek argiak, ikusten errazak eta iraunkorra izan behar zirela, horrela jendeak jakingo baitzuen bideokameraz zaindutako eremu batean sartzen zela. Kartelak jendeak ikusteko behar beste izan behar dira, nonahitik sartzen delarik ere, horrela uneoro jakingo baitu bideokameraz zaindutako eremu batean dagoela.

Gaur egun, poliziaren bideokameraz zaintzeko sistemaren bat dagoen lekuan, informazio-kartel desberdinak daude, bai diseinuari, bai edukiari dagokionez. Agindu honen bidez, kartelen diseinua eta edukia arautu nahi da, informazio-bereizgarrien eredua berdindu nahirik, horrela jendeak errazago identifikatu ahal izango baititu Euskadiko Poliziak bideokamera bidez zaindutako eremuak.

Aurretik azaldutako guztiagatik, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Beharraren arabera, informazio-kartel bat edo batzuk erabiliko dira, jendeari jaki-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

2400

ORDEN de 15 de abril de 2011, del Consejero de Interior, por la que se establece el contenido y diseño de los carteles informativos de la instalación y uso de videocámaras fijas por la Policía del País Vasco.

El Decreto 168/1998, de 21 de julio, por el que se desarrolla el régimen de autorización y utilización de videocámaras por la Policía del País Vasco en lugares públicos regulado en la Ley Orgánica 4/1997, de 4 de agosto tiene por objeto regular el régimen de autorización y uso de videocámaras por la Policía del País Vasco con el fin de contribuir a asegurar la convivencia ciudadana y el uso pacífico de vías y espacios públicos, erradicar la violencia y prevenir la comisión de delitos, faltas e infracciones relacionados con la seguridad pública.

El artículo 9 de dicho texto legal establece el derecho del público a ser informado de manera clara y permanente de la existencia de videocámaras fijas, sin especificar su emplazamiento, así como el derecho a conocer quien es la autoridad responsable de la instalación de las mismas.

En sesión de 7 de octubre de 2009, la Comisión de Videovigilancia y Libertades adoptó como criterio que dicha información al público se debe de producir mediante la colocación de carteles informativos instalados de una manera clara, visible y permanente de manera que avisen al público de que se entra en una zona videovigilada. Estos carteles deben de ser de un número suficiente de modo que el público pueda verlos, acceda desde donde acceda, y esté informado en todo momento de que pasa por una zona videovigilada.

Actualmente, en los lugares donde hay un sistema de videovigilancia policial, existen, en cuanto a diseño y contenido, diversos modelos de carteles informativos. Con esta Orden se pretende regular el diseño y contenido de los mismos con el fin de homologar el modelo de los distintivos informativos, y de que el público pueda identificar más fácilmente las zonas videovigiladas por la Policía del País Vasco.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.– Para informar al público de la existencia y uso de instalaciones fijas de videocámaras

naraziko baitiote bideokameren instalazio finkoen kokapena eta erabilera. Kartelen edukia eta diseinua agindu honen eranskinean daude.

2. artikulua.– Informazio-kartelek adieraziko dute zein agintarik duen bideokamera finkoz zaindutako instalazioen erantzukizuna, horrela interesatuek erabili ahal izango baitute eskuratzeko eta deuseztatzeko eskubidea.

AZKEN XEDAPENAK

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 15a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

por parte de la policía se utilizará uno o varios carteles informativos, según sea necesario, cuyo contenido y diseño figura en el anexo de la presente Orden.

Artículo 2.– Los carteles informativos señalaran quien es la autoridad responsable de las instalaciones de videocámaras fijas a los efectos de que las personas interesadas puedan ejercer sus derechos de acceso y cancelación.

DISPOSICIONES FINALES

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 abril de 2011.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.

ERANSKINA

Informazio-kartelaren diseinuak honako baldintza hauek bete behar ditu:

1.– Itxura errektangularra du eta ertz angeluzuzenak ditu. Kartelaren neurri estandarrak gutxi gorabehera hauek dira: 21 cm-ko oinarria eta 29,7 cm-ko garaiera. Neurri horiek handitu edo txikitu litezke, kontuan harturik bideokameraz zaindutako eremua nolakoa den, bai eta zenbateko distantzian dagoen ere, informazio-ezaugarriak eraginpeko pertsonek ondo ikusteko moduan egon daitezen.

2.– Atzeko kolorea urdina (286 pantone-a) du, goian 3 bat mm-ko ertz zuria du eta errektangelu zuri baten erdian jarririk dago. Errektangeluak 9,5 cm-ko oinarria du, eta 6,5 cm-ko garaiera, eta goiko albotik 7 bat cm-ra kokatuta dago. Irudien grabazioen piktograma jasota egon behar da. Errektangelu horren azpian, piktogramarekin jasota dago dagokion legeriari buruzko aipamena. Beheko aldean, agintari eskuduna dago, grabazioak eskuratzeko eta deuseztatzeko eskubidea gauzatze aldera.

ANEXO

El diseño del cartel informativo debe ajustarse a los requisitos siguientes:

1.– Tiene que ser de forma rectangular y con las aristas en ángulo recto. Las dimensiones estándares del cartel son, aproximadamente, 21 cm de base y 29,7 cm de altura. Estas dimensiones pueden aumentar o disminuir según sea el área o zona sometida a videovigilancia y la distancia que sea necesaria para que el distintivo informativo resulte visible para las personas afectadas.

2.– Tiene como color de fondo el azul (pantone 286) con borde blanco de aproximadamente 3 mm arriba y centrado dentro de un rectángulo blanco, de unas dimensiones aproximadas de 9,5 cm de base y 6,5 cm de altura y situado aproximadamente a 7 cm del lado superior, tiene que constar el pictograma de grabaciones de imágenes. Debajo de este rectángulo con el pictograma consta la referencia a la normativa vigente correspondiente. En la parte de abajo se sitúa la autoridad competente para el derecho de acceso y cancelación de las grabaciones.

ZAINTZAPEKO GUNEA
ZONA VIGILADA



4/1997 LEGE ORGANIKOA– LEY ORGÁNICA 4/1997

GRABAZIOAK ESKURATZEKO ETA BALIOGABETZEKO AGINTARI ESKUDUNA

AUTORIDAD COMPETENTE PARA EL ACCESO Y CANCELACIÓN DE LAS GRABACIONES